

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Barrika



Aurkibidea

Udalerria: Barrika

Sarrera



Uribe Kosta eskualdean kokatzen den kostaldeko herria da eta Bizkaiko herririk zaharrenetakotzat jotzen da. Biztanleria bi zonaldetan banatzen da: Elexalde eta Goierri. Nekazaritzara eta abeltzaintzara bideraturiko herria da. Sopelana eta Urduizantza doan maldan, Gane, Arriaga, Mendieta (Sopelarekin bat) eta Zabaletxe aurkitzen dira. Udalerriaren malda bien bizkarrean Goierri auzoa dago. Eta Elexalde auzunearen barne, Lepola, Larretxe, Musurieta, Sandeliz, Ardantza, San Telmo eta Elexalde bera aurkitzen dira. Iparraldean Bizkaiko Golkoa dago, hegoaldean Plentzia eta Urduliz, mendebaldean Sopela eta ekialdean Butroe ibaiaren itsasadarra.

Argazkia: Javier Mediavilla Ezquivela

- **Biztanleak:** 1.555
- **Euskaldunak:** %43,18

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **11**
- Zintak: **24**
- Pasarteak: **102**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **102**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak
- IRLAren Bizkaiera Bilduma

Hizlariak

Edurne Ametxazurra Basarrate (1936-2013)



Barrikako Goierri auzoko Florenteri etxean jaio zen 1936. urteko Santo Tomas egunean. Bere aita gerratean desagertu zen. Ezkondu ostean, Frantziara joan ziren bizitzen eta handik bueltan auzora bueltatu ziren. Bi seme-alaba izan zituen.

Ines Arostegi Montes (1918)



Bilbon jaio eta Barrikan hazi eta bizi izan da. Zortzi neba-arreba izan ziren. Aitak itsasoan egiten zuen lan.

Karmen Astika Urbieta (1934)



Goierri auzoko "Letxerene" izenez ezaguna den baserrian jaio zen 1934. urtean. Zazpi neba-arreba izan ziren, baina lau umeak zirela hil ziren. Ama Barrikakoa zuen eta aita Sopelakoa. Bere senarragaz, [Pedro Santorkuatogaz](#), egin zitzaion grabazio bat.

Virginia Goikoetxea Zabala (1945)



Goierriko Telleriko alaba. Hiru neba-arrebatako erdikoa izan zen. Aita Getxon jaiotakoa, baina Sopelan hazitakoa zuen; ama. oster, Barrikakoa. 23 urtegaz ezkondu eta Bartzelonara joan zen. Hamar urteren ondoren Leioara etorri zen bizitzen.

Andresa Ikaza Olabarrieta (1928-2013)



Erandiogoikoako Isurdiabaron jaio zen 1928. urtean. Zortzi neba-arrebatatik gazteena izan zen. Bost bat urte zituela etorri ziren Barrikara.

Jose Luis Landea Sustatxa (1923-2012)



Musurieta auzoko Sandelizen jaio zen 1923. urtean. Ama umetan Lemoiztik etorritakoa zuen eta aita Goierri auzokoa. Zortzi neba-arrebatatik bosgarrena izan zen. Eskolara gutxi joan ei zen etxeko lanak eta gerra tarteko. Gerratean bere anaia bat hil zuten eta Algortan egon ziren ebakuatuta. Umetatik aritu izan da arrantzan eta ehizan. Beteranoen Euskadiko ehiza txapelduna izan zen. Ezkontzerakoan, Goierriko Agarre baserrira joan zen bizitzera. Bere emazte [Mari Karmen Zeanuri](#)ekin batera egin zitzaion elkarriketa.

Martin Ramon Olarra Berriatua (1904)

Barrikan jaio eta bizitakoa da. Umetan esnea banatzen eta antzeko lanetan aritzen zen. Hamalau urterekin itsasoan hasi zen, osabaren itsasontzian. Harrezkero, belaontzietan, itsasontzietan, gabarrak kargatzen, atoiontzietan, gidari lanetan, gasolinoarekin (bidaiaariak eramateko txalupa) eta ontzioletan lan egin izan du, besteak beste. Arrantzarako zaletasuna izan du eta oso ondo ezagutzen ditu arrantza teknikak. Gerra garaian boluntario joan zen milizianoekin eta preso egon zen.

Jose Santorkuato Ateka (1925-2022)



1925. urtean sortu zen Barrikako Goierri auzoko Torretxe baserrian eta 8 neba-arrebatatik hirugarrena izan zen. Ama Barrikakoa zuen eta aita Abadiñon jaiotakoa. Bederatzi urterekin Barrikako eskolan hasi zen eta hamar urte zituela gerra hasi zenez, gutxi ikasi ahal izan zuen bertan. Aita marinela zen eta amak etxeko lanak egin eta baserria aurrera eramaten zuen. Baserria inguratzen zuten lur-eremu ugari izan zituzten eta bertan ganadu eta baserriko animalia asko, artoa, garia, patata... lantzen zituzten. Aita itsasoan zegoenez, etxeko seme zaharrenek lan asko egin behar izan zuten etxean eta hauek etxetik joan ahala, berari egokitu zitzaizkion baserriko lanak. 25 urterekin itsasoratu eta jubilatu zen arte, bertan egon zen lanean munduan zehar ibilitako hainbat itsasontzitan.



Mari Karmen Santorkuato Ateka (1934)

Goierri auzoko Torretxen jaio zen eta beti bizi izan zen bertan.



Pedro Santorkuato Ateka (1930-2013)

Barrikan jaio, hazi eta gogortu dela dio, nahiz eta Bilbon 30 urtez bizi izan. Bertako Torretxen jaio zen 1930. urtean. Bere emaztea, [Karmen Astika](#), ere egon zen beragaz batera elkarrizketan.



Mari Karmen Zeanuri Bilbao (1927)

Goierri auzoko Agarre baserrian sortua eta bizi izandakoa; hori dela-eta, beti aritu izan da baserriko beharretan. Bere ama Mungiako Biler auzokoa zen eta aita Leioakoa. Bost neba-arrebatako familiako gazteena izan zen. Umetan Goierriko bertako eskolan ibili zen. Gerran Leioako izeko baten etxera joan ziren babes bila. Bere senar [Jose Luis Landea](#)gaz batera egindako grabaketan parte hartu zuen.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Baserria

1.1. Txerria, "gehien mimatzen" zen animalia

- **Hizlaria(k)**: Santorkuato Ateka, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez, Andere
- **Erref**: BKA-018/007
- **Iraupena**: 0:00:34. **Hasi**: 00:13:27. **Bukatu**: 00:14:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Txerria izaten zen baserrian "gehien mimatzen" zen animalia. Txerri-hiltzeari buruz hitz egiten du. Txerrikiak gatzetan sartzen ziren, ondo manten zitezen.

Transkripzioa

- Txarrie izen da etxeen ondoen guarda dan animali. Lehen. Gehien mima dana txarrie, [alderdi] guztixen. Bai.
- Eta ze eitten zan gero beragaz?
- Ba, sasoie etorten zanin hil, erre, gatzatan sartu eta [...] morzillak eta in eta aurrera, holan, jateko.
- Gatzatan sartu?
- Gatzatan, bai, gatzatan. Ez zegon... frigorifiko be ez zegon, korrienterik be ez zegon.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Astoan eta ontzian jeneroa saltzera (BKA-002/002)

Amak soloan lan asko egiten zuen. Bendeja otzaretan jarri eta Lindo astoaren gainean joaten zen jeneroa saltzera. Errekaren beste aldera ontzian pasatzen ziren. 5-6 urte zituela etorri ziren Erandiogoikoatik Barrikara eta sasoi hartan egon ziren auzoko eskola eraikitzen

2. Neska-mutilak eskolan batera (BKA-002/004)

Auzoko eskolan mutilak eta neskak batera zeuden, ehun bat ume ei ziren. Mutilak eskoian (eskuman) jesartzen ziren eta neskak ezkerrean. "Agarradan" aritzen ziren elkarri min egiten, marimutilak zirela dio.

3. Umetan beti astakeritan (BKA-002/005)

Tronpaka, pilotaka, tiragomagaz txoriak hiltzen... aritzen ziren jolasten. Astakeria asko egiten zituztela dio Andresak. Eskolan ere kromoekin aritzen ziren. Eskularruak jantzi eta boxeoan ibiltzen ziren.

4. Torretxebarriko denda (BKA-002/006)

Torretxebarriko dendan denetarik saltzen zuten: abarketak, jatekoa...

5. Eskolan euskara galarazita eta dotrina frontoian jaso (BKA-002/008)

Abadea eskolara joaten zen dotrina ematen. Euskaraz egiten zenez, maistrak ez zion uzten eskolara sartzen. Hori dela-eta, handik irten eta frontoian ikasten zuten dotrina. Zigor gogorrak izaten zituzten euskaraz aritzeagatik.

6. Erdara neskame garaian ikasi zuen (BKA-002/009)

Andresak ez zuen eskolan ikasi gaztelania. Barrikabason lanean zegoela, bertako galiziar bategaz ikasi zuen.

7. Sopelara erromeriara (BKA-002/011)

Sopelako erromeriara joaten ziren gaztetan; hamarretarako etxean egon behar zuten. Gero, San Pedrotan erromeria amaitu arte

8. Bizikleta alokatu (BKA-002/012)

Dantzan egiten zuten Sopelako erromerian. Gaztetxoagoak zirenean jolasean ibiltzen ziren edo bizikleta alokatzen zuten hango bideetan ibiltzeko.

9. Ezkontzako soinekoa beltza (BKA-002/013)

Senide batekin ezkondu zen, grabazioko elizan bertan. Fadurakoa zen senarra, euskalduna. Beltzez ezkondu zen, eskularru luzeekin, diadema buruan eta takoidun oinetakoak.

10. Hegazkinek metrailatzen zuten etxe ingurua (BKA-002/015)

Sei urte zituen gerra garaian, eta ondo gogoratzen du dena. Ahizpak eramaten zuen ezkutatzera. Hegazkinek metrailatzen zuten etxe ingurua, eta hegazkinari iheska ibiltzen ziren.

11. Getxora ebakuatu beharra (BKA-002/016)

Gerran, Getxora alde egin beharra izan zuten; orduan ezagutu zuen gero senarra izango zena. Sollubetik jaitsi ziren nazionalak eta Trescaminosen Burdinazko Gerrikoa egon arren, arin egin zuten aurrera.

12. Lau neba gerrara (BKA-002/017)

Bi neba ibili ziren gudari Gernika inguruan; hirugarren bati Madrilera joatea tokatu zitzaion eta gazteena hamazazpi urterekin eraman zuten gerrara eta Artxandan hil zuten.

13. Soldaduen arrantxoa jaten zuten (BKA-002/019)

Gosea pasa zuten gerran eta auzoan zeuden soldaduen altzoan jesarrita haien arrantxoa jaten zuten. Batailoi osoa zuten etxe inguruan.

14. Buru gainean gerrako hegazkinak (BKA-002/020)

Gainean ikusten eta entzuten zituzten gerrako hegazkinak, "kazak" eta handiagoak. Etxetik hurbil obus galdu batek egin zuen eztanda. "Tanke oruga" bat auzoko muna batean sartu zen eta kostata atera zen.

15. Txapel gorriak sortutako istiluak (BKA-002/021)

Jipoi ederra eman zion Luzio Trescaminosetik txapel gorria eramatearren etxera. Borla horidun txapel gorria eramatearren, umetan, eurek jipoitu zituzten alkate erreketearen alabak. Erreketeari hilkutxan sartu zioten txapel gorria.

16. Tropen mugimenduen arabera aldatu behar etxebizitza (BKA-002/022)

Etxe inguruko batailoiak mugitu zirenean, itzuli ziren Getxotik etxera. Bizkor mugitzen ziren tropak. Aita eta, pinudi batean egon ziren ezkutatuta. Asturiarrek eta alemaniarrek ere gogor jokatu zuten.

17. Beheko sua, ezkaratza eta larrena (BKA-002/024)

Txikitan, Erandion, beheko suan prestatzen zen janaria; geroago, Barrikan, txapan. Ezkaratza esaten zioten sueteari. Larrena etxe aurreko landa bat da; hondakinak botatzen ziren horra.

18. Zegoena jaten zen (BKA-002/026)

Indabak, lentejak, garbantzuak... egoten zena prestatzen zuten beheko sutan.

19. Edateko, iturriko ura (BKA-002/027)

Ez zuten ardorik edaten, iturriko ura baino. Ez zuten urik etxean. Etxe aurreko iturrira (manantialera) joaten ziren.

20. Afaltzeko taloa (BKA-002/028)

Afaritan, eguerdiko soberakinak taloarekin edo sardina zaharrak jaten zituzten. Sardina bat bi edo hiruren artean banatzen zen.

21. Sastegia edo larrena (BKA-002/030)

Erandion, sastegia zen etxe aurrean hondakinak botatzen ziren tokia. Barrikan, larrena.

22. Gabonetan olio-azak (BKA-002/031)

Gabonetan olio-azak. Patatekin egosten zen aza; gero, patata kenduta, piper txorizeroa eta berakatza olio berotara botata gehitzen zitzaion azari.

23. Besomotz itzuli zen gerratik neba (BKA-002/033)

Kalean zegoela, hartu eta eraman zuten nazionalek neba Santanderrera. Ez zioten gurasoei abisatzen utzi. Besoa galdu zuen han eta bota zuten etxera. Bizitzeko ondo moldatzen zen beso bakarrarekin, baina ezin zuen ikusi apaizik ez elizarik.

24. Apaiz euskaldunak herrian (BKA-002/034)

Apaiz euskaldunak izan dituzte beti; dotrina eta lehenengo jaunartzea ere euskaraz izan zituen.

25. Lehenengo jaunartzea (BKA-002/035)

Dotrina ikasitakoan egiten zen lehenengo jaunartzea. Beste baten arropekin egin zuen Andresak; moja jantzi urdina zen. Hogeitase baino gehiago izan ziren.

26. Barrikako kaperak (BKA-002/036)

1961ean egin zen kapera (bideokoa). Misioetan joaten ziren bi frantziskotarrek bultzatu zuten eraikuntza berria. Barrikan eliza bakarra eta hiru kapera daude.

27. Berehala bataiatzen zen jaioberria (BKA-002/037)

Ama ezin zen teilapetik atera jaioberria bataiatu arte. Aitabixik, amabixik eta emaginak eramaten zuten umea elizara. Gurasoek aukeratzen zuten izena.

28. Sendotza sakramentua Erandion (BKA-002/038)

Lehen, behin bataiatuz gero, edonoiz ematen zen Sendotza sakramentua. Amak eraman zuen bera, Erandion, eta Gasteizko gotzainak eman zion Sendotza. Orain dena dago aldatuta.

29. Angelusa eta abemariakoak (BKA-002/039)

Eguerdiko hamabietan, Angelusaren kanpaiak jotzen ziren; zaharrenek, txapela kenduta, belauniko errezatzen zuten. Iluntzean abemariakoak jotzen ziren.

30. Errespetua galduta (BKA-002/040)

Gaur egun, dena dago aldatuta: fedea galduta eta errespetua ere bai. Lehen gurasoek berek irakasten zuten, zaplada batekin, behar bazen. Orain, aldiz, zaplada emanez gero, salaketa jartzen da berehala.

31. Igandeetan mezatara (BKA-002/041)

Igandeetan joaten ziren mezatara. Kaperako eta parroko meza orduak dioz.

32. Gizonezkoak kanpai bat gehiago (BKA-002/043)

Hamabietan jotzen du tokea Andresak berak Barrikako parrokian, hilberriren bat dagoenean. Gizonezkoa hiltzen denean, kanpai bat gehiago jotzen zaio. Larunbatetan ere toke berezia jotzen da.

33. Elizako laguntzaile lanetan (BKA-002/044)

42 edo 43 urte daramatza elizako laguntzaile lanetan. Hasieran, akolitoak jantzi eta txilina jotzen zuen meza hasteko.

34. Meza orduak (BKA-002/045)

Barrikako meza orduak. Andresak parrokian eta kaperan laguntzen du; zaharren egoitzako kaperan ez.

35. Keinuka apaizarekin (BKA-002/046)

Apaizaren orrazkerari buruzko kezka izaten zuen Andresak, eta zeinuarekin berarekin konturatzen zen meza emalea ilea zuzendu behar zuela. Aldarean formak faltaz gero ere, keinuka ulertzen ziren.

36. Andrazkoak eta gizonezkoak bananduta elizan (BKA-002/048)

Lehen, elizan, bananduta esertzen ziren: emakumeak alde batean eta gizonak bestean. Hiletetan, lutokoak lehenengo bi ilaretan, familiaren arabera.

37. Elizara ondo jantzita (BKA-002/049)

Lehen, ezin zen elizara sartu ez mahuka hutsik, ez galtzerdirik gabe. Buruan mantelina eraman behar zen. Zigorra izaten zuten umeek hurrengo egunean, galtzerdirik gabe joanez gero.

38. Gero eta luto gutxiago (BKA-002/050)

Lutoko urteak gutxitzen joan dira. Orain ez da eramaten, gorririk be berdin, gurasoen hileta izan arren.

39. Umearen hil-kanpaiak (BKA-002/052)

Umearen hil-kanpaiak jotzeko, jiraka jotzen zen kanpaitxo bat egoten zen. Zuria izaten zen hilkutxa.

40. San Juan egunean lizarra atean (BKA-002/053)

San Juan egunean, ateetan lizarra eta loreak jartzen ziren. Eguzkia atera aurretik jartzen zuen lizarra ama zenak. Lizarrarekin batera, gari sorta bat, baratxuriak eta beste zerbait jartzen zen. Fedegabetzat hartzen zen jartzen ez zuena.

41. Gabon-gaueko ogi koskorra gorde (BKA-002/054)

Gabon-egunean, ogia hartu, gurutzea egin gainean, muin eman eta hasten zen jaten. Lehenengo zatia, mantelaren azpian gordetzen zen, eta hurrengo urterako gordetzen zen mantela kendutakoan. Ez zen lizuntzen. Txakur

amorratuari zati bat emanez gero, kendu egiten dio amorrua. "Ogi salutadu" deitzen zaio.

42. Ur bedeinkatua tximistetaik babesteko (BKA-002/056)

Gabon-gaueko ogi zatiari ez zaio lizunik ateratzen eta elizako ur bedeinkatua ere ez da galtzen. Ur bedeinkatu hori etxean botatzen da ekaitz egunetan, tximistek kalterik egin ez dezaten.

43. Aizkora ahoz gora tximista apurtzeko (BKA-002/057)

Behien adarrek eta apatxek erakartzen dituzte tximistak. Kortan bertan hil izan du ganadua tximistaren batek. Ekaitz egunean zuhaixken azpian babestea ere arriskutsua da. Ama zenak, tximistak zeudenean, etxearen gailurraren azpian aizkora ahoz gora jartzen zuen, joz gero, hantxe apurtzeko.

44. San Juan bagiletako... (BKA-002/058)

San Juan bezperako suaren inguruko kopla batzuk esaten ditu Andresak: "San Juan bagiletako...", Amak esaten zuen eskukadatxo bat erretzea nahiko zela.

45. Lehen euskalduna iraindu eta orain euskara ikasi ezinik (BKA-002/060)

Lehen barre egiten zieten herriko euskaldunei, gazteleraz ez zekitelako; "aldeanas" esaten zieten. Orain berak egiten die gazteleraz, eta euskaraz egiteko eskatzen diote besteek.

46. Erandion "iturrire", Barrikan "itxurrire" (BKA-002/061)

Bera, Erandiokoa izanik, zenbait hitz ezberdin esaten ditu (itxurrire / iturrire). Behin Zollora joan ziren eta han bertsolari batzuekin geratu ziren; haien esanetan, ez zuten Barrikako euskara ulertzen, baina bai Andresarena.

47. Soka kantuan (BKA-002/065)

Kanta: "Bat eta bi, hiru..."; "Jolastu eiten ziren soka-jokoan..." Ez du gogoratzen.

48. San Andres jaiak (BKA-002/067)

San Andresetan, meza, hamaiketakoa eta bertsolariak egoten dira. Lehen jazban eta guzti egiten zen erromeria arratsaldean; orain, aldiz, ez.

49. Basazko San Isidro egin zuen (BKA-003/008)

Umetan, basazko gauzak egiten zituen behiak zaintzen ari zen bitartean, eskultura gustatzen zitzaion eta. Ezkertia zen eta eskuina erabiltzera behartzen zuten.

50. Soka-dantzan txikitan (BKA-003/009)

Soka-dantzan (saltoan), txorro-morroan... jolasten zuten.

51. Kisketean jolasean (BKA-003/012)

Kisketean jolasten zuten: oina gora altxaturik, harria bota bestearekin, lurrean zenbakiak direla. Harriak alde eginez gero, galdu egiten zen.

52. Maistrarekin gazteleraz eta apaizarekin euskaraz (BKA-003/014)

Ume askok ez zuten euskararik egiten Goierrin; maistrarekin gazteleraz eta eurek euren artean euskaraz eta apaizarekin ere bai. "Erroie" deitzen zioten apaizari.

53. Txorro, morro, piko... (BKA-003/016)

"Txorro, morro, piko, tallo, ken" mutilen jolasa zen. Behin, ostikada itzela eman zion apaizak Andresari, atzez, makurtuta jolasean ari zela.

54. Domekan arrosariora (BKA-003/021)

Zazpi-zortzi urterekin, domeka arratsaldean arrosariora joaten ziren, Barrikako parrokiara.

55. Argi egiten zitzaien hildakoei (BKA-003/022)

Sopelako elizara joaten zen, "Argi egiten" zen eta. Baten bat hiltzen zenean kandelak pizten ziren. Etxe batean uzten ziren kandelak hurrengo domekarako.

56. Jantzi zuridun bahitzailleak (BKA-003/023)

Arrosariotik etxera zihoazela, igande arratsaldean, furgoneta handi bat egon zan geldi. Barnekoak zuririk jantzita; eurak harrapatu nahian aritu ziren, baina ihes egitea lortu zuten. Orduan ere bahitzen omen zituzten umeak eta Sakamantekas ibiltzen zen.

57. Elizako liburua itxi arte, sorgina barruan (BKA-003/025)

Antzina sorginak egoten ziren; elizako liburua itxi arte, ezin zen sorgina kanpora joan. Horrela jakin zuen Eurnek herriko emakume zahar bat, Isidra, sorgina zela.

58. Sorginengandik babesteko (BKA-003/027)

Sorginengandik babesteko, zilarrezko medailatxo bat eta zakutxo bat eramaten zuten aldean; barruan bere izena zegoen.

59. Sorginen tokiak (BKA-003/030)

Agarreko landan sorginak ibiltzen ziren. Harriak saskietan eraman eta egiten zituzten bideak. Ganebasora joaten ziren egurretan.

60. Auzoko sorgina (BKA-003/033)

Larrekoetxean egon zen, eta katu bat agertu zen. "Juana, gaue ta gorutan?" esan zion katuak eta bertzuna bota zioten. Gero, beste aldeko andrea errenka agertu zen.

61. Sakamantekas (BKA-003/035)

Sakamantekasen beldur izaten zen. Orduan ere desagertzen ziren umeak

62. Mutikoa bahitu nahi (BKA-003/036)

Arrosariotik etxera zihoazela, motor batekoak gozokiak eskaintzen ari zitzaizkion mutiko bati. Berak tira egin eta eraman zuen mutikoa arrastaka, besteek bahitu nahi baitzuten

63. Begizkunaren aurka eztainua eta beruna (BKA-003/038)

Begizkuna eginez gero, pertsona makalik geratzen zen. Hori kentzeko, auzoko batek berun eta eztainu urtua uretara botatzen zituen; lau puntako izarra ateratzea zen begizkuna desagertu zen seinalea.

64. Aita "marinoa" (BKA-018/003)

Joseren aita itsasoan ibiltzen zen. Argentina, Singapur, Manilan... ibili zen. 14 urterekin hasi, eta erretiroa hartu arte ibili zen itsasoan. Sukaldean aprendiz moduan hasi eta maiordomo lanetan amaitu zuen.

65. Baserri bizimodua (BKA-018/006)

Aita itsasoan ibiltzen zen, eta amak eramaten zuen etxea. Arreba zaharrenak lan asko egin behar zuen etxean. Ez zuten argindarrik. Baserrian zer ganadu zeukaten aipatzen du.

66. Behar sakratuena zaldiak (BKA-018/009)

Kortako behar sakratuena zaldiak egiten zuela dio, errotara irin bila ere zaldiz joaten ziren. Guardia Zibilak ere zaldia izaten zuen. Edozein zaldik ez du balio basoan ibiltzeko. 10-12 urte zituenerako zaldi gainean joaten zen. Horri buruzko hainbat azalpen ematen ditu.

67. Astoa familiako kide bat gehiago (BKA-018/011)

Behor gainean joateko jesarlekua larruzkoa zen. Astoari goizean goizetik jartzen zitzaion basta eta azken ordura arte askotan ez zitzaion eransten. Astoak dira baserrian behar gehien egiten zuten animaliak. Joseren ustez familiako kide bat gehiago izaten zen astoa. Ama Bilbora joaten zen trenez erosketak egitera herrian denda txiki bat baino ez zegoen-eta. Esne-saltzaileak ere astoz joaten ziren trenera. Ezinbestekoa zuten astoa.

68. Astoaren okela oso gozoa (BKA-018/012)

Astoa jateko ederra da. Larrua, belarriak eta tripak izan ezik beste dena aprobetxatzen da. Ondo jan duen bost-sei urteko astoa (arra) egokia da horretarako.

69. Animalia zentzudunena eta usaimen onenaduna astoa da (BKA-018/013)

Astoa da usaimen eta ahosabai onena duena. Oso argia da, sekula ez du harri berean bi biderrez estropezu egingo. Behin egindako bidea ikasi eta ez da inoiz galduko. Animaliek zein ur den ona eta zein ez ondo jakiten dute: astoek zaldiek baino hobeto nabaritzen dute eta idiek behiek baino hobeto. Etxean bi asto zituzten, badaezpada ere.

70. Ferratzaile lana ez da batere erraza (BKA-018/014)

Sopelan eta Urdulizen ferratzaile bana zeuden. Ez da ofizio erraza eta gutxi egiten zuten behar zegokion legez. Izan ere, zapatak balira bezala, neurrira egon behar izaten ziren.

71. Artoa eta ardi-okela labean (BKA-018/016)

Etxean jasotzen zutenarekin bizi ziren. Artoa gura beste zuten. Labea otearekin berotzen zuten eta bertan sikatzten zuten artoa. Ardiaren okela artaburuaren gainean berotuta gozo-gozo ei dago.

72. Ganadua loditu saltzeko (BKA-018/017)

Beraien etxean "labasua" (labeko sua, ogia) egiten zuten. Garia animalien pentsua egiteko ere erabiltzen zuten. Zahia erosi eta harekin loditzen zituzten txahalak gero saldu ahal izateko. Agustin Atxa harakina joaten zen etxera txahal bila eta berari saltzen zioten.

73. Gari-lanak (BKA-018/018)

Garia azaroan ereiten da. Gari-lanak azaltzen ditu pasarte honetan.

74. Ilargiaren eta emakumeen hilerokoaren eragina (BKA-018/019)

Ilargiaren eragina sakratua da. Solorako edo animaliak hiltzeko kontuan hartu behar da. Emakumea hilerokoagaz baldin badago, ezin du txerrikoa ikutu (odolostak...), alferrik galtzen baita.

75. Pentsurik onena artoa (BKA-018/021)

Bere ustez pentsurik onena artoz egindako da. Artoa jaten duen animaliak okel ederra du.

76. Txerriarentzako esnea (BKA-018/022)

Txerridunak (txerri saltzaileak) etxeri etxe joaten ziren. Esne onenagaz ondo loditzen ziren. Ira sikuaren gainean egoten ziren txerrikortan. Idientzako eta txahalentzako ere ona da.

77. Txerriaren sexua zelan desberdindu? (BKA-018/023)

Txerriaren sexua zelan desberdintzen zen azaltzen du. Txerriak etxerako hazten ziren, ez ziren saltzen. Edozein txerriki ez ei da fidagarria, etxekoa da fidagarria.

78. Negu gogorren ondorioak (BKA-018/025)

Bilbon mekaniko ikasten zebilela, goizaldean itzartu eta trenera joan behar izaten zen. Neguan trena ez zen ondo ibiltzen eta sarritan Algortaraino joan behar izaten zen oinez. Sarritan busti-bustita bukatzen zuten.

79. Autobus bakarra Barrikan (BKA-018/027)

Barrikatik autobus bakarra pasatzen zen. Bendejarekin (plazarako jeneroa) zihoan jendea Portugaleteko zubira eroaten zuen.

80. Etxean egindako larruzko abarkak (BKA-018/028)

Oinetakoak larruzkoak izaten ziren; gomazkoak kortako beharretarako erabiltzen zituzten. Etxean egindako abarkak eta artilezko galtzerdiak izan zituzten. Abarkekin labea egitea erraza da eta jakin egin behar dira erabiltzen.

81. Arrainduna etxera (BKA-018/029)

Joseren etxekoek, bera baino zaharragoek, etxeko jateko baino ez zuten jaten. Lantzean behin arrainduna joaten zen etxerik etxe eta diruz edo trukean erosten zuten arraina.

82. Esnearentzat neurriak eta diru-motak (BKA-025/004)

Esnea banatzen ibiltzen zen, goizez eta arratsalde. Neurriak esaten ditu: azunbrea, kuartilloa. Diruak ere azaltzen ditu: txikerra, erreala, txakurra, pezeta.

83. Hamalau urterekin itsasora (BKA-025/005)

Hamalau urterekin itsasoan hasi zen, osabarekin. Lehenengo bidaiari ez zuen ezer irabazi; bigarrenen bai. Hogeita hamar ogerleko gastatu zituen amak beretzako jantzia erosten.

84. Anberesko olinpiadetan (BKA-025/006)

Ibaizabal izeneko belaontzi batean lan egin zuen. Anberesko olinpiadetan egon zen. Jose Mari Belaustegigoitia eta Sabino Erandiokoa ezagutu zituen han.

85. Plentzian gabarrak kargatzen (BKA-025/009)

Plentzian gabarrak kargatzen ziren hondarrarekin, Bilbora eramateko, eta horiek kargatzen ibili zen. Ordu biko zazpi pezeta irabazten zituen. Soldatona zen.

86. Atoiontziekin Donostiara ura eramatera, gerrarengatik (BKA-025/012)

Gerra hasi zenean, Francoren barkuak ibiltzen ziren Bilbon, Donostia aldea bonbardatu eta gero. Atoiontziak eraman zituzten Pasaiaetik Donostiara ura eramateko, frankistek ur-hodiak apurtu zituztelako. Ia fusilatu zituzten errepublikanoek, susmo txarra hartuta.

87. Trintxerpen ia fusilatu zituzten (BKA-025/013)

Trintxerpen ia fusilatu zituzten errepublikanoek. Lonja batean sartu zituzten. Hurrengo egunean dena argitu zuten baina hala ere, askok errezeloz begiratzen zieten.

88. San Andres batailoian boluntario (BKA-025/014)

San Andres batailoian aritu zen boluntario, zultatzaile. Cerdigon (Castro Urdialesen, Kantabrian) trintxerak egiten aritu zen gauez. Ondoren, Limpiasen (Kantabrian) italiarrekin topo egin zuten. Preso gehienak Laredora eraman zituzten baina bera Castrora. Ikastetxe batean sartu zituzten preso.

89. Nola lortu zuen kartzelatik irtetea (BKA-025/015)

Castron preso zegoela, ezagun batekin topo egin zuen eta etxekoei bere berri eman ziezaien eskatu zion hari. Alkatearen gomendiozko gutuna aurkeztu zuen. Ramon Peña laguna zuen eta hark lagundu zion kartzelatik irteten.

90. Frantziara minerala eramaten (BKA-025/017)

Gerran boluntario eta preso egon ostean, berriz ere atxilotzietara bueltatu zen lanera. Bigarren mundu gerra hasi zenean, Frantziara minerala eramaten zuten itsasontzi txiki batzuetan hasi zen lanean.

91. Muxarrak, aingirak eta txipiroiak (BKA-025/027)

Arrantzale ona izan dela dio. Muxarrak kainaberarekin harrapatu izan ditu. Aingiratar joan zenekoa kontatzen du. Txipiroiak zelan harrapatzen diren azaltzen du.

92. Txitxarroa, berdela eta lupia (BKA-025/028)

Txitxarroa, berdela eta lupia amuarekin eta koilaratxoarekin harrapatzen dira. Azalpen zehatzak ematen ditu. Arrain artifizialak.

93. Berdela "yo-yo"arekin (BKA-025/029)

Berdeletarako "yo-yo" izeneko tresna erabiltzen zuten. Berdela zelan arrantzatzen den azaltzen du.

94. Txitxarroa koilaratxoarekin edo bildots zatiarekin (BKA-025/030)

Txitxarroa koilaratxoarekin eta bildotsaren artile zatiarekin (larru eta guzti) zelan harrapatzen den azaltzen du.

95. Itsas kabra zelan arrantzatu (BKA-025/031)

Itsas kabra kordelarekin, berunarekin eta amuarekin harrapatzen du. Azalpen zehatzak ematen ditu.

96. Itsas aingira eta angula (BKA-025/034)

Itsas aingira asko arrantzatu zituenekoa kontatzen du. Aingirari ahoan eskurik ez zaiola sartu behar esaten du. Angulak Antilletatik datozela azaltzen du.

97. Ur-txakurra itsasontzietan (BKA-025/039)

Bermeoko itsasontzietan ur-txakurra eramaten zuten, amutik askatutako arraina harrapatzeko.

98. Legatza "bola-harria"rekin (BKA-025/040)

Legatza arrantzatzeko erabiltzen den aparejuaren zehaztasunak ematen ditu, "bola-harria"rena. Bermeotarrek pikean harrapatzen zutela dio, batel txikiekin.

99. Bisigua zergatik galdu den (BKA-025/041)

Bisigua oso gutxi dagoela dio. Zela arrantzatzen duen azaltzen du. Arraste-ontzien eraginez galdu dela bisigua azaltzen du.

100. Beita aingiratarako eta txipiroietarako (BKA-025/042)

Aingiratarako erabiltzen dute beita, baita txipiroietarako ere. Galtzerdiaren barruan sartu izan du.

101. Burbinak edo arrano-berrugetak (BKA-025/043)

Burbinak (arrano-berrugetak) deskribatzen ditu. Beitarekin arrantzatzen dira.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-06

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com